

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

43/2020 Foru Agindua, otsailaren 13koa, onartzen duena Arabako Jaiak kartelaren sariari buruzko erabakia eman behar duen epaimahaia izendatzea, San Prudentzio eta Estibalizko Andra Maria, 2020

Otsailaren 6ko 29/2020 Foru Aginduaren bidez onartu ziren Arabako San Prudentzio eta Estibalizko Andra Mariaren 2020ko jaiak iragartzeko kartel lehiaketarako deialdia eta oinarriak.

Deialdiaren laugarren oinarrian ezarritakoaren arabera, epaimahaia izendatu beharra dago.

Aztertu dugu Kultura Ekintza Zerbitzuaren buruak emandako txostena.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

XEDATZEN DUT

Lehena. Arabako Festak, San Prudentzio eta Estibalizko Andra Maria, 2020 iragartzeko kartelaren lehiaketako epaimahaia izendatzea. Hara nortzuk izango diren epaimahaiko kide:

- Estibaliz Iregi Etxebarria.
- Elisabeth Palacios Negueruela.
- M. Lucía López Peciña.
- Alberto Otsoa Gutiérrez.

Epaimahaiko idazkari, Enrique Uriarte Gonzalo-Bilbao jardungo da.

Bigarrena. Foru Agindu hau ALHAOn argitaratu dadila agintzea, guztiek jakin dezaten, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 13a

Kultura eta Kirol Saileko diputatua
ANA M. DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria
M^a. INMACULADA SÁNCHEZ ARBE